

OHARRA: Testu kotsolidatu honek testu bakar batean aurkezten du araudia, ondorengo aldaketekin, errazago irakurtzeko eta ulertzeko. Hala ere, lege-balioa duen testu bakarra Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa da (era berean, aldaketa ofizialak aipatutako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak dira).

- [Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2005/03/01ean](#)
- 1. aldaketa: 15. artikulua, [Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2014/02/25ean](#)

OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOAREN GAINEKO UDAL ORDENANTZA

ZIOEN ADIERAZPENA

Mugikortasun iraunkorrari buruz Eusko Jaurlaritzak enkargatutako ikerlanen arabera, egungo gizarteak halako moduz goratu du ibilgailu partikularra non, ibilgailu mota horrentzat eginak diren errepide eta bideetan ez ezik, jaun eta jabe izatera heldu baita hiri espazio mugakide guztietan, espazio horiek beste erabilera batzuetarako izan edo ez izan.

Gaur egun, gainerako giza taldeen eskubideak eta interesak ahaztuta, auto gidariak espaloietara igotzen dira, gehiegizko abiaduraz gidatzen dute edo zirkulazio kodean oinarritutakoak diren arauak hausten dituzte hiriguneetan. Gure kaleak, gaur egun, indartsuenaren legea aplikatuz galtzada eta espaloiez jabetzen diren ibilgailuek inbaditzen dituzte.

Egoera horren aurrean, toki administrazioek edo udalaz gaineko administrazioek zirkulazioaren arazoa gaizki kudeatuko balute, edo batere kudeatuko ez balute, hiri eremu guztiak garraio partikular indibidualaren beharrezanetara makurraraztea eragingo luke horrek eta, beraz, Udalek *de facto* ehunka metro koadro gorde beharko lituzkete, arras kutsagarri eta ingurumenarentzat zeharo kaltegarri diren ibilgailu partikular horiek biltzeko.

Horregatik guztiatik, Udal honek beharrezkotzat jo du tresna eragingarriak bereganatzea, zirkulazioa arautzea eta giza talde babesgabeen –persona zaharren edo hurren– eskubideak bermaraztea ahalbidetuko dutenak.

Honako Ordenantza honek Zirkulazioari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen atalkako testua onestu zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 7. artikulua Udalei esleitzen dien eskumena garatzen du.

Oinezkoen eskubideak defendatu nahi ditu eta horregatik hiri bideen erabilerak arautzea du helburu, gizarte erabilerak eta ibilgailuen zirkulazioa bateragarri izan daitezten. Halaber, ibilgailuak erretiratu eta gordailura eramateko aukera aurreikusten du, zirkulazioa edo oinezkoen joan-etorria oztopatu edo eragozten dutenean edo arrisku egoerak eragin ditzaketenean.

I. TITULUA

APLIKAZIO ESPARRUA

1. artikulua.

Ordenantza hau Eskoriatzako udal barrutiko herri barruko bide guztietan aplikatuko da, Zirkulazio Kodea onetsi zuen 1934ko irailaren 25eko Dekretuan, Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Oinarrien uztailaren 25eko 18/1989 Legean, Zirkulazioari, Motordun Ibilgailuei eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen atalkako testua onetsi zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuan, Zirkulazio Araudi Orokorra onetsi zuen 13/1992 Errege Dekretuan eta horiekin bat datozen gainerako xedapenetan ezarritakoari kalterik egin gabe. Udalerriko gainerako lekuetan ordenantza osagarria ezarriko da.

II. TITULUA

SEINALEEI BURUZKOA

2. artikulua.

1. Udal Administrazioak behar bezala seinaleztatuko ditu bere eskumeneko bideak, zirkulazio seinale bertikalen, bide oharren eta aldi baterako seinaleen bitartez. Bidearen erabiltzaileei zuzenduriko seinale horien zeregina da erabiltzaileak alde aurretik ohartarazi edo informatzea, edo beraien jokabidea antolatu edo arautzea, bidearen edo zirkulazioaren baldintza jakin batzuen aurrean.
2. Herriaren sarreran ezarritako agindu seinaleek udal barruti osoan dute indarra, kale tarte baterako berariazko seinaleen kasuan izan ezik.
3. Udaltzaingoa Agenteen seinaleak beste guztiei gailentzen zaizkie.

3. artikulua.

1. Ezin da seinalerik ezarri, kendu, lekualdatu, ezkutatu edo itxuraldatu, udalaren aurretiazko baimenarekin ez bada.
2. Udal Agintearen iritziz benetako interes publikoa duten seinale berriemaileak baimendu ahal izango dira bakarrik.
3. Ez da zilegi izango seinaleetan edo seinaleen ondoan publizitatea jartzea.
4. Debekatuta dago toloak, afixak, iragarkiak eta, oro har, bestelako instalazioak ezartzea, baldin eta erabiltzaileei seinaleak normaltasunez ikustea galarazten badiete, edo haien arretaren desbideragarri izan balitezke.

4. artikulua.

Udalak berehala kenduko ditu behar bezalako baimenik ez duten edo indarrean diren arauak betetzen ez dituzten seinaleak, eta arduradunak ordaindu beharko ditu seinaleok kentzeak eragindako gastuak. Eta hala egingo da, bai arauz kanpoko seinaleekin eta bai seinale edo afixaren forma, kokapena edo diseinua zuzena ez den kasuetan.

III. TITULUA

UDALTZAINGOAREN JARDUKETA BEREZIEI BURUZKOA

5. artikulua.

Udaltzaingoak, Segurtasunari edo Ordena Publikoari loturiko arrazoiak direla medio, edota zirkulazioaren arintasuna bermatze aldera, noizean behin zirkulazioaren antolaera aldatu ahal izango du, pertsona edo ibilgailuen metatze handiak gerta litezkeen tokietan, bai eta larrialdi kasuetan ere. Horretarako, kasuan-kasuan beharrezkoak diren seinaleak aldi baterako ezarri edo kendu ahal izango ditu, bai eta aitzin-neurri egokiak hartu ere.

IV. TITULUA

OZTOPOAK BIDE PUBLIKOAN

6. artikulua.

Debekatuta dago oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa –edota, ibilgailuen kasuan, aparkatzea– eragotz lezakeen edozein oztopo edo objektu bide publikoan ezartzea. Debeku horretatik at geratzen dira Udalak berariaz baimendu litzakeen bide publikoen okupazioak, kasuan-kasuan ezarritako baldintzekin beti ere.

7. artikulua.

Oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazio librea eragozten duen oztopo oro behar bezala babestuta eta seinaleztatuta egon beharko da eta, gaueko orduetan, argiztatuta ere, erabiltzaileen segurtasuna bermatzearen.

8. artikulua.

Udal Aginteak ahalmena izango du oztopoak arduradunaren kargura kentzeko, baldin eta:

1. Ez badu dagokion baimena eskuratu.
2. Oztopoa edo objektua ezartzea eragin zuen egoera iraungi bada.
3. Baimenean ezarritako denbora gainditzen bada, edo bertan ezarritako baldintzak betetzen ez badira.

Oztopoak kentzeari ekingo dio, orobat, segurtasunezko edo higiene-osasunezko arrazoiengatik hala jokatzeko ezinbestekoa denean, eta beharrezkoa denean obrak egiteko, edo ikuskizunak emateko, behar bezala baimendutako segizioen iragaiteak antolatzeke eta neurri hura modu arrazoituan justifika dezaketen antzeko kasuetan. Kasu horietan, oztopoak kentzeak eragindako gastuak Udalak ordainduko ditu, baldin eta eremua ez bada behar bezala seinaleztatu edo oztopoak seinaleak baino lehenago izan badira ezarriak.

9. artikulua.

1. Altzariak edo objektuak biltzeko edukiontzia, obretako hondakinenak, etxeetako zaborrenak eta beste, udalaren organo eskudunak erabakitako bide publikoko puntuetan

egokituko dira, zirkulazioari eragin liezaioketen eragozpen oro ahalik eta gehien murriztuz.

2. Gurpilez hornituta dauden eta, beraz, higagarri diren edukiontziek euste mekanismoak ere izan beharko dituzte, nahi gabe mugi ez daitezen.
3. Bideen baldintzak direla eta, ezinbestekoa denean edukiontziak aldi baterako zirkulazio erreietan ezartzea, edukiontziok modu eragingarrian seinaleztatu beharko dira, bai egunez eta bai gauzez ere, gutxienez 50 metrora ikusgarri izan daitezen.
4. Udaltzaingoak ahalmena izango du edukiontziak erretiratzeko, baldin eta udal baimenik gabe ezarriak izan badira, edo kokagune baimenduetatik at badaude, edo, behar bezala seinaleztatuta ez egoteagatik, zirkulazioarentzat arrisku larri bat gorpuztu lezaketenean. Neurri horrek eragindako gastuak beroriek sorrazazi dituen pertsonak hartuko ditu bere gain.

V. TITULUA

1. atala. OINEZKOEI BURUZKOA

10. artikulua.

1. Oinezkoak espaloietatik ibiliko dira.
2. Galtzadak iraganbide seinaleztatuetatik gurutzatuko dituzte eta, halakorik ez denean, etxadien erpinetatik, galtzadaren perpendikularrean, kontu handiz.
3. Iraganbide arautuetan, zorrozki bete beharko dituzte beraiei zuzenduriko oharrak.

2. atala. OINEZKOENTZAKO GUNEAK

11. artikulua.

1. Herriko gune jakin baten ezaugarriek hala justifikatzen dutenean, Udalak osoki edo partzialki debekatu ahal izango du ibilgailuen zirkulazioa edo aparkamendua, gune haren baitako bide bat edo guztiak oinezkoentzat erreserbatzeko helburuaz. «Oinezkoentzako guneak» izena izango dute, eta Bando bidez zehaztuko dira.
2. Oinezkoentzako guneek seinaleztapen egokia izan beharko dute sarrera-irteeretan, eraginpeko kale edo gunean ibilgailuak sartzea eta zirkulatzea galarazteko bestelako elementu higigarriak erabiltzeari kalterik egin gabe.
3. Oinezkoentzako guneetan, ibilgailuen zirkulazio eta aparkamendu debekuak ezaugarri hauek izan ahalko ditu:
 - a) Gunearen perimetroaren baitan diren bide guztietara edo soilik batzuetara iritsi ahalko da.
 - b) Aurrez finkatutako ordutegi batera murriztu ahalko da, edo ez.
 - c) Egunerokoa izango da, edo soilik egun kopuru jakin baterakoa.
4. Erabakitako murrizketen norainokoa edozein delarik ere, ez dira behin ere oztopatuko honako ibilgailu hauek beren zerbitzua betetzeko beharrezkoak diren zirkulazioa eta aparkamendua:

- a) Suhiltzaile zerbitzuarenak, Polizia zerbitzuarenak, anbulantziak eta, oro har, zerbitzu publikoak emateko beharrezkoak direnak.
- b) Guneko etxe batera edo etxe batetik gaixoak garraiatzen dituztenak.
- c) Ibia gunearen barruan kokatuta duen garaje baimendu batetik irten edo bertara jotzen duten ibilgailuak, eta oinezkoentzako gunearen barruko aparkaleku baimendu batetik irteten direnak.
- d) Bizikletak

VI. TITULUA

GELDIUNEEI, APARKAMENDUEI ETA LEHENTASUNEZKO BIDEI BURUZKOA

I. KAPITULUA GELDIUNEAK

12. artikulua.

Geldiune guztiek ondoko arau hauek bete behar dituzte:

1. Arau orokor gisa, edozein motatako ibilgailuen geldiuneak berori eragin duen helburua betetzeko behar-beharrezkoa den denbora baizik ez iraungo, beti ere 2 minutuko aldia gainditu gabe, eta gidariak ezin izango du ibilgailua utzi; zerbaitegatik hala egingo balu, beragandik hurbil izan beharko du ibilgailua, hala eskatzen badiote edo egoerak hala eskatzen badu, berehala kentzeko moduan.
2. Edozein kasutan ere, ibilgailua eskuinaldeko espaloian utzita egingo da geldiunea, baina zirkulazio-noranzko bakarreko bideetan ezker aldean ere egin ahal izango da. Bidaiariak espaloien aldetik jaitsi beharko dira ibilgailutik. Gidaria, jaitsi behar izanez gero, beste aldetik jaitsi ahal izango da, baldin eta aurrez behar bezala egiaztatu badu arriskurik gabe jaitsi daitekeela.
3. Gune eta bide publiko guztietan, zirkulazioarentzat zailtasun gutxien sorraraz daitezkeen puntuetan egingo da geldiunea. Ezin izango da ezein kasutan espaloien gainean gelditu. Salbuespen dira bidaiariak gaixorik edo ezindurik dauden kasuak, edo larrialdietarako zerbitzu publikoen edo garbiketara zerbitzuko edo zabor bilketarako zerbitzuko kamioien kasuak.
4. Espaloirik gabeko kaleetan, gutxienez bi metroko aldea utziko da gertuen dagoen fatxadatik.

13. artikulua.

Geldialdia debeku da erabat:

1. Espaloietan, bizikletentzako pasabideetan eta oinezkoentzako iraganbideetan.
2. Erabiltzaile jakin batzuen zirkulazioarentzat edo zerbitzuarentzat berariaz erreserbatutako errail edo bide zatietan, eta garraio publikoaren geralekuetan.
3. Bide lotuneetan eta lotuneen inguruetan.
4. Erabiltzaileei seinaleak ikustea galarazi eta maniobraren bat eginaraziko liekeen lekuetan.
5. Zirkulaziorako lehentasunezkoetat jotzen diren bideetan.
6. Gorputzezko urrituentzako iraganbide gisa prestatutako espaloietako beheraguneetan.
7. Kasuan kasuko seinaleek hala debekatzen duten tokietan.

8. Denbora gutxirako bada ere, zirkulazioari kalte egin dakiokeen bestelako tokietan, are aurreko kasuetan ere.

III. KAPITULUA APARKAMENDUAK

14. artikulua.

Oro har, honako arau hauek zuzenduko dute ibilgailuen aparkamendua:

1. Ibilgailuak hiru eratarata aparkatu ahalko dira: ilaran, hots, espaloiarekin paraleloan; baterian, hots, espaloiarekin perpendikularrean; eta erdi-baterian, lapranean.
2. Arau orokor gisa, lau gurpileko ibilgailuak ilaran aparkatuko dira eta bi gurpilekoak, berriz, baterian. Arau horren salbuespena berariaz seinaleztatu beharko da.
3. Galtzada seinaleztatuta dagoenean, markatutako perimetroaren barruan kokatuko dira ibilgailuak.
4. Ibilgailuak, aparkatzerakoan, espaloitik ahalik gertuen kokatuko dira, baina tarte txiki bat utzirik, galtzadaren parte hori garbitzeko lanei lekua uzteko.
5. Nolanahi ere, berez ez abiatzeko edo edonork ez mugitzeko moduan aparkatuko dute gidariak ibilgailua. Hartu beharreko neurriak hartuko dira horretarako. Gidariak izango dira erantzule, baldin eta, aipatutako egoeraren bat dela kausa, ibilgailua kokagunez aldatu eta arau-hausteren bat gertatzen bada, salbu eta ibilgailuaren lekualdaketa hirugarrenen eraginez eta ageriko indarkeriaz gertatu izan bada.
6. Bide publikoetan ezin izango da motordun ibilgailutik banandutako atoirik aparkatu.

15. artikulua.

Aparkatzea debeku da, erabat, honako egoera hauetan:

1. Gelditzea debekatuta dagoen tokietan.
2. Kasuan kasuko seinaleek aparkatzeko debekua adierazten duten tokietan.
3. Ibilgailuaren eta galtzadaren bestaldeko ertzaren edo galtzadako luzetarako marka zeharkaezin baten arteko distantzia hiru metrotik beherakoa denean edo, edozein kasutan, beste ibilgailuen iragaitea eragozten edo maniobra arriskutsuak egitera behartzen duenean.
4. Bigarren ilaran, hala lehenengo ilarakoa ibilgailu bat bada nola edukiontzi edo babeserako elementu bat bada.
5. Galtzadaren erdian. Ibilgailu bat galtzadaren erdian dagoela ulertuko da, baldin eta espaloiarene ondoan ez badago.
6. Ibilgailu lerro bakar batentzako tokia besterik ez duten kaleetan.
7. Zirkulazio-noranzko biko kaleetan, baldin eta galtzadaren zabalerak bi ibilgailu lerro iragaiteko tokia besterik ez badu.
8. Espaloietan, nasetan, aterpeetan, erdiko eta alboetako ibilbideetan eta zoladuran zerrendez seinaleztatutako guneeetan, hala okupazioa partziala nola osoa bada.
9. Salgaien zamatan egiteko bereizitako guneeetan.
10. Ibi edo pasabideetan, osorik edo partzialki bada ere.
11. Toki ber batean ondoz ondoko *bi hilabetetik* gorako epean edo zehaztu gabeko aldi baterako, ibilgailua abandonatuta dagoela pentsarazteko moduan.
12. Aparkalekuen perimetroetan seinalatutako mugetatik kanpo.
13. Espaloirik gabeko kale urbanizatuetan.
14. Baimendutako jarduketetarako okupatuak izan litezkeen guneeetan edo konpondu, seinaleztatu edo garbitu beharrekoetan. Kasu horietan, debekua behar bezala

jakinaraziko da, hedabide egokien bidez eta aparkatuta dauden ibilgailuen haizetakoetan ohar orriak utziz. Aldez aurreko iragarpen hori denbora nahikoaz egingo da, premia justifikatuko kasuetan izan ezik.

15. Kasuan kasuko garbiketa zerbitzuei edo bestelako bilketa zerbitzuei edukiontziak edo bestelako biltegiak hustea eragozten zaien tokietan.
16. Zirkulazioa oztopatzen den tokietan, edo ikuspen urriko tokietan, beste ibilgailuen ikusgaitasuna modu arriskutsuan murriztarazten den edo ageriko arriskua lekarketen arauz kanpoko maniobrak egitera behartzen duten tokietan.
17. Mugikortasun urriko ezinduentzako aparkatzeko txartelaren titularrak edo titularraren gidari-laguntzaileak bi ordu baino gehiago Eskoriatzako herri gunean beraientzako erreserbatutako aparkalekuen artetik denbora mugatuz erabiltzeko berariaz seinaleztatutako aparkalekuetan.

16. artikulua.

Udalak ahalmena izango du ordutegi mugatuko eta aparkamendu arautuko gunek ezartzeko (TAO).

Aparkamendu arautuko zerbitzu horren aplikazio esparrua eta hura arautuko duen ordutegia Alkateak ezarriko du, Bando bidez eta Udalaren Zerbitzu Teknikoen gomendioz.

Aparkamendu mugatuko esparruetan aparkatzeko, erabiltzaileek, onetsitako prezio publikoa ordainduta (1. tarifa), titulu gaitasun-emaile egokia eskuratu beharko dute, gune ezberdinetan horretarako instalatutako makinetan.

Gehienezko egonaldi denborak gunean ezarritako seinale horizontal eta bertikaletan adieraziak izango dira.

Aparkatzeko titulu gaitasun-emailea ibilgailuaren haizetakoaren barrualdean ezarri beharko da, kanpoaldetik erraz ikusteko moduan, salbu eta aparkatzeko baimena eskuratzeko modua ez denean ticketaren bidezkoa.

Aparkamenduaren iraupenak ezin izango ditu gehienezko denbora baimenduak gainditu.

Aparkamendu arautuaren zerbitzuari loturiko gunetan titulu gaitasun-emailea jarri gabe aparkatuta gelditzen diren ibilgailuak, edota titulu gaitasun-emailean ordaindutako denboraren bikoitza gainditzen bada, bide publikotik alden du eta helburu horrekin prestatutako tokira eramanak izan ahalko dira.

Era berean, ibilgailua ibilgetu ahal izango da, denbora mugatuko gunetan aparkatzeko titulu gaitasun-emailek ez badu edo emandako baimena gainditzen badu, harik eta gidaria identifikatzea lortzen den arte.

IV. KAPITULUA

LEHENTASUNEZKO BIDEAK

20. artikulua.

1. Zirkulazioaren alorrean, hauek izango dira lehentasunezko bideak: ibilgailu ugaritasunari, ibilbideari, kokaguneari eta beste bide batzuekiko komunikazioari begira, herri barruan zirkulazioa antolatzeke ezinbestekoak diren bideak.
2. Bide horiek herri barruko zirkulazioaren zati handi bat jasan behar dutenez, eta berorietan eginiko arau-hausteek eragin handiagoa dutenez gainerako erabiltzaileen arrisku eta kaltetan, Udaltzaingoak arreta zorrotzuz zainduko ditu, eta prestasun handiagoz jokatuko du.
3. Lehentasunezko bideetako geldione eta aparkamenduei loturiko arau-hausteak, aurreko ataletan aipatutakoari begira, arau-hauste larriak izango dira.
4. Kultura, kirol eta bestelako ekimenetan bide horiek erabiltzeak zirkulazioan izan ditzakeen eragin larriak direla eta, hilabete lehenago eskatu beharko du baimena erakunde antolatzaileak, konstituzioan jasotako biltzeko eta manifestatzeko eskubidea erabiltzeari kalterik egin gabe, eskubide horrek bere berezko arauei jarraituko baitie.
5. Aurreko atalak aipagai dituen baimenetan, eskatutakoa ez den ordezkoko ibilbide bat proposatu ahal izango da, hasiera batean egin nahi zena ez egitea aholkatzen duten baldintzak tartean direnean. Edonola ere, Udaltzaingoak kasuan kasuko zirkulazio planak garatuko ditu zirkulazioa eten edo desbideratu behar denean, eta erabiltzaileei kalte txikiena eragingo dieten ordezkoko bideak adieraziko ditu.

6. Hauek hartuko dira lehentasunezko bide gisa:

- Aranburuzabala kalea
- Arana kalea
- Gaztañadui kalea
- Intxaurtxueta 1etik 6ra
- Aingeru ibilbidea

Udalak, Alkatearen Bandoaren bidez, ahalmena izango du Ordenantza honetan lehentasunezkoztat jo diren bideak aldatu edo zabaltzeko.

VII. TITULUA

IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK ERRETIRATZEARI ETA GORDETZEARI BURUZKOA

21. artikulua.

Hala egitera behartua denak egingo ez balu, Udaltzaingoak ahalmena izango du ibilgailua bidetik erretiratu eta ibilgailuen udal gordailura eramateko, honako kasu hauetan:

1. Ibilgailuen zirkulazioari edo bide publikoen beste erabiltzaileei edo zerbitzu publiko baten funtzionamenduari arazo larri bat eragiteko arriskua dagoenean; eta, orobat, zentzuzkoa denean bide publikoan abandonatua izan dela susmatzea.
2. Istripu baten ondorioz ibiltzen jarraitzerik ez duenean eta, horregatik, hura egitera behartuta dagoenak ezin egin dezakeenean.

3. Ibilgailua bere akatsengatik ibilgetua izan denetik 48 ordu igaro eta gidariak edo jabeak akats horiek zuzendu ez dituenean.

22. artikulua.

Honako hauek dira, banan-banan adierazita, ibilgailu bat Ordenantza honen 1. ataleko 21. artikuluan xedatutako baldintzetan dagoela ulertuko den kasuak eta, beraz, ibilgailu hura erretiratzea justifikatuta dagoen kasuak:

1. Gelditzea debekatuta dagoen puntu batean aparkatuta dagoenean. Bereziki espaloi gainean.
2. Bigarren ilaran eta gidaririk gabe aparkatuta dagoenean eta, beraz, Ordenantza honen 15. artikuluan zehaztutakoa betetzen ez duenean.
3. Oinezkoentzako pasabideak diren guneean edo gorputzezko urrituentzako espaloi beheagune batean aparkatuta dagoenean.
4. Ibi bat osoki edo partzialki hartzen duenean, hura erabiltzeko baimendutako ordutegiaren barruan.
5. Zamalanetarako erreserbatutako guneean geldirik edo aparkatuta dagoenean, baldin eta gunearen erabilera orduen barruan badago eta ez bada ez bidairirik ez salgairik zamatzen edo uzten ari.
6. Garraio publikoaren geraleku seinalezatu eta mugatu batean aparkatuta dagoenean.
7. Larrialdietako edo segurtasuneko zerbitzuentzat berariaz erreserbatutako tokietan aparkatuta dagoenean.
8. Ikuskizun publikoetarako lokalen larrialdietarako irteeren aurrean aparkatuta dagoenean, ikuskizunen emanaldi orduen barruan.
9. Gorputzezko urrituentzako toki erreserbatu batean aparkatuta dagoenean.
10. Osoki edo partzialki oztopatzen duenean etxe baterako sarbidea.
11. Alkatearen Bandoaren bidez «lehentasunezko»tzat hartutako eta berariaz seinalezatutako bide bateko toki debekatu batean aparkatuta dagoenean.
12. Galtzadaren erdian aparkatuta dagoenean.
13. Oinezkoentzako guneean eta gunee harentzat markatutako baldintzetatik at aparkatuta dagoenean, salbu eta berariaz baimendua izan bada.
14. Arriskutsu izan daitekeenean edo zirkulazioari edo zerbitzu publikoren baten funtzionamenduari eragozpen larria eragin diezaikeenean, aurreko kasu guztietan bezalaxe.

23. artikulua.

Udaltzaingoak, orobat, ahalmena izango du ibilgailuak bide publikotik aldentzeko, nahiz eta arau-hausterik egin ez, honako kasu hauetan:

1. Behar bezala baimendutako ekitaldi publiko baterako erabilia izango den toki batean aparkatuta daudenean.
2. Ezinbestekoa denean bide publikoa garbitu, konpondu edo seinalez hornitzeko.
3. Larrialdietan.
1. Artikulu honetako 1. eta 2. ataletan zehaztutako baldintzak ahalik eta denbora epe handienarekin ohartarazi beharko dira, eta ibilgailuak ahalik eta hurbilen dagoen toki baimendura eramango dira, gidariei beren ibilgailuen kokagunearen berri emanez. Lekualdatze horiek ez diote inolako gasturik eragingo ibilgailuaren jabeari, ibilgailua edonora eramana delarik ere.

II. KAPITULUA

IBILGAILUAK IBILGETZEA

24. artikulua.

Udaltzaingoak ahalmena izango du ibilgailu bat ibilgetzeko, baldin eta hura erabiltzea arriskutsua izan badaiteke zirkulazioarentzat, pertsonentzat edo pertsonen ondasunentzat.

Neurri hori, bera eragin duten arrazoiak desagertu bezain laster altxatuko da.

III. KAPITULUA

GASTUAK EGOZTEA

25. artikulua.

1. Lapurreta kasuan edo ibilgailua jabearen nahiaren kontra erabiltzeko bestelako moduen kasuan izan ezik (halakoak behar bezala justifikatu behar dira), Ordenantza honetako 20. Artikuluan aipatzen den erretiratze lanen ondorioz sortutako gastuak jabearen kontura joango dira; jabeak, ibilgailua berreskuratuko badu, aldez aurretik gastuok ordaindu beharko ditu, edota ordainketa egingo duela bermatu.
2. Erretiratutako ibilgailua delituren bat egiteko erabilia izan bada, eta hura Agintaritza Judizialaren esku utzia izan bada, auzibidetik egingo da gastuen erreklamazioa.
3. Udal gordailura eramandako ibilgailua jabeak edo behar bezala baimendutako pertsona batek erretiratu ahal izango du, ez beste inork.

26. artikulua.

Ibilgailua bide publikotik erretiratu edo ibilgetzeko lanak hasten diren unean sortzen da gastuei erantzuteko betebeharra. Horretarako, nahikoa da garabia edo helburu bereko ibilgailua erretiratu edo ibilgetu beharreko ibilgailuaren ondoan egotea, esku-hartzeari ekin ez bazaio ere.

IV. KAPITULUA

IBILGAILUAK ERRETIRATU ETA IBILGETZEKO ZERBITZUAREN TARIFAK

27. artikulua.

Ibilgailuak bide publikotik erretiratu eta ibilgetzeagatiko tasak Eskoriatzako Udalaren Zerga Ordenantzetan finkatutakoari jarraiki sortuko dira.

28. artikulua.

Bide publikotik jabea jakitun izan gabe ibilgailu bat erretiratu denean, hura erretiratu denetik 48 ordu igaro eta ibilgailua jasotzera inor agertu ez bada, berariaz jakinaraziko zaio kasuan kasuko erregistroan jabe gisa ageri denari.

VIII. TITULUA

ABANDONATUTAKO IBILGAILUEI BURUZKOA

I. KAPITULUA: BIDE PUBLIKOETAN

29. artikulua.

Ibilgailu bat abandonu egoeran dagoela esan ahal izango da, honako zirkunstantzia hauetako batean badago:

1. Bi hilabetetik gorako epea eman badu bide publikoko leku berean aparkaturik.
2. Dituen akatsengatik abandonu egoeran dagoela arrazoiz esan daitekeenean edo berez mugitzerik ez duenean.

30. artikulua.

Abandonu egoeran dagoen ibilgailuak zirkulazioan edo zerbitzu publiko baten funtzionamenduan halako arrisku edo enbarazu larririk eragiten ez duen bitartean (bestela berehala erretiratuko baita), honela jokatu da:

1. Egoeraren berri emango zaio Ibilgailuen Erroldan haren titular gisa ageri den pertsonari edo haren legezko jabeari, eta errekerimendua egingo zaio, hamar eguneko epean ibilgailuaz arduratu dadin eta abandonu egoera konpon dezan.
2. Baldin eta hamar egunak igarota, ibilgailua abandonu egoera berebetean egongo balitz, hura udal gordailura eramana izango da, Udalak horretarako espaziorik izanez gero. Ibilgailua gordetzeko tokian espaziorik ez egotekotan, beste nonbaitera eramango da, baldin eta dagoen tokian nahasmen larriak eragiten baditu. Hori guztia, dagokion zehapen espedienteak hasteari kalterik egin gabe.
3. Titularren kargura joango dira abandonatutako ibilgailuak erretiratzeagatik ordaindu beharreko gastuak.

II. KAPITULUA UDAL GORDAILUAN

31. artikulua.

Zirkulazio arauak hausteagatik, zirkulazio istripuengatik, prozedura judizial burutu baten eraginpeko egitateengatik edo bestelako arrazoi justifikatuengatik udal gordailura eramana izan diren ibilgailuak, hilabete igaro bada gordailuan sartu zirenetik edo prozedura burutu zenetik eta titularrek edo jabeek ez badituzte bildu, ibilgailu abandonatutzat hartuak izango dira, eta hurrengo artikuluan aurreikusitako moduan jokatu da.

III. KAPITULUA

IBILGAILU ABANDONATUEN BESTERENTZEA EDO «DESEGITEA»

32. artikulua.

1. Udalak enkante publikoan salgai jarriko ditu abandonatutako ibilgailuak, edota ibilgailuak desegiteko tokira eramango ditu, baldin eta, titularrei ibilgailuak erretiratu eta gordailura –edo, beharrezkoa izanez gero, beste toki batera– eraman direla berariaz eta formalki jakinarazi zaienetik, hilabete igaro bada ibilgailuez arduratzeko neurri egokirik hartu gabe.
2. Gordailuratutako ibilgailuen titularrak ezezagunak izatekotan edo egonleku ezezagunean baleude, haiek lokalizatzeko kudeaketek emaitzarik eman ezean, aurreko zenbakian aipatutako jakinarazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako Ediktuen bitartez egingo da, titularren kontura, agertuko balira, ibilgailuen erreferentziak eta ezaugarriak ahalik eta zehaztasun handienaz emanez.
3. Ibilgailu abandonatuak enkante publikoan saldu edo desegin aurretik, Udalak izapideak egingo ditu Industria Ordezkaritzarekin eta/edo Probintziako Trafikoko Buruzagitzarekin, indarrean den legediaren arabera ibilgailu mota horiek dituzten betebeharrak bete daitezen.
4. Aurreko xedapen horiek ez dira aplikatuko ibilgailuak prozedura judizial baten pean dauden zirkulazio egitateetan nahasirik baleude, izapidea amaitu artean.
5. Ibilgailuak enkantean saltzearen emaitzak, lehenik, gastuak ordaintzeko erabiliko dira: bai erretiratzeak eta gordetzeak eraginiko gastuak eta bai enkanteak sorturikoak. Soberakina, berriz, bi urtez gordeko da ibilgailuaren titularraren alde. Epe hori igarota, Udalak jasoko du.

33. artikulua.

Titularrek ibilgailuak berariaz abandonatzeko borondatea adierazten duten kasuetan, horiek modurik egokienean erabiliko ditu Udalak.

34. artikulua.

Ibilgailu abandonatuak besterentzeko prozedurak ez du aldatuko titularrek ibilgailuok abandonatu izanagatik edo titularitate horretatik lehendik sortutako obligazioengatik duketen erantzukizuna. T

IX. TITULUA

I. KAPITULUA – ZIRKULAZIO NEURRI BEREZIEI BURUZKOA

35. artikulua.

Egoera bereziek hala eskatuko balute, zirkulazioa antolatzeko kasuan kasuko neurriak hartu ahal izango dira, ibilgailuen zirkulazioa debekatuz edo murriztuz, edo herriaren alde batzuetarako sarrerak bide jakinetatik kanalizatuz, bai eta aparkamendua berrantolatuz ere.

Udalak ahalmena izango du aldi baterako debekatzeko ibilgailuek aparkatu eta/edo zirkulatzea ekintza baimenduetarako erabili behar diren guneeetan edo konponketa, seinaleztatze, mantentze edo garbiketa lanetarako hartu behar diren guneeetan.

Horretarako, gune horiek behar bezala mugarriztatuko dira, eta debekua 24 ordu lehenago seinaleztatuko da, neurria hartu izanaren zioa eta neurriaren hasiera unea adieraziko duten murriztapen seinaleen bidez.

II. KAPITULUA – LEHENTASUN ALDERANTZIKATUKO GUNEA EDO EGOITZA KALEAK

36. artikulua.

Bide publikoetan ibilgailuek zirkulazio arauak murrizturik izango dituzten eremuak ezarri ahal izango dira. Behar bezala seinaleztatuko dira, eta halakoetan oinezkoek izango dute lehentasuna kasu guztietan. Bizikletek ere lehentasuna izango dute ibilgailuen aurrean, ez ordea oinezkoen aurrean.

Eremu hauetan ezin da 20-30 km/orduko baino azkarrago joan.

III. KAPITULUA. MATERIALEN ZAMALANAK

37. artikulua.

Merkantzien zamalanak lokalen edo eraikinen barrualdean egin beharko dira, tokiak bete beharreko baldintzak betetzen baditu.

38. artikulua.

Merkantziak eta kargatu edo deskargatu behar diren gainerako gaiak ez dira galtzadan edo espaloian utziko, eta zuzenean eramango dira lokaletik ibilgailura edo alderantziz.

39. artikulua.

Ibilgailuak espaloitik hurbilen duen aldetik kargatu edo deskargatuko dira salgaiak, bitarteko aproposenak erabiliz lan horiek arin egiteko, eta oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa ahalik eta gutxien oztopatuz.

40. artikulua.

Hiri barneko karga eta deskarga lanak ez dira goizeko 8:00ak baino lehen hasiko eta erabat amaituta egon beharko dira arratsaldeko 20:00etan, eta kontu handiz bideratuko dira, beharrik gabeko zaratarik sor ez dadin, eta erabilitako eremua garbi uzteko betebeharrari men eginez.

Arrazoi berezi baten bat dela medio, zamalanak ordu horietatik kanpo egin beharko balira, Udaltzaingoaren baimena beharko da horretarako.

41. artikulua.

Merkataritza edo industria lokalen baldintzak direla eta ezinezkoa bada zamalanak barrualdean bideratzea, horretarako erreserbatutako eremuetan egingo dira lan horiek.

42. artikulua.

Udalak araupeko eta denbora mugatuko zamalanetarako eremuak seinaleztatzeari ekingo dio. Banaketa merkataritza guneen baldintzak kontuan hartuta egingo da: kokalekua, erabileraren maiztasuna, eta zirkulazioan eta bideen gainerako erabiltzaileengan izango duten eragina.

43. artikulua.

Horretarako erreserbatutako eremuetatik kanpo, zamalanak soilik baimenduko dira baldin eta erreserbatutako eremurik ez badago edo biltegirako distantziak nekea edo arriskua sor badezake.

Zamalan horiek egiterakoan Ordenantza honetan aparkamenduari begira xedatu diren arauak bete behar dira eta ez zaie bide publikoaren gainerako erabiltzaileei inolako arrisku edo kalterik sorraraziko.

X. TITULUA

ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENI BURUZKOA

44. artikulua.

1. Ordenantza honen aurkako ekintzak eta omisioak administrazio mailako arau-hausteen izaerakoak izango dira eta Udalak indarrean dagoen legediaren arabera zehaztuko dituen kasuetan, moduan eta neurrian zigortuko dira, baldin eta ez badira lege penaletan zehazturiko delituak edo hutsak. Kasu horretan Administrazioak epaitegi eskudunaren esku utziko du auzia eta uko egingo dio zehapen prozedurari jarraipena emateari epaileak epairik ematen ez duen bitartean.

Zigortuko dira, halaber, 1934ko irailaren 25eko Dekretuaren bidez onarturiko Zirkulazio Kodea, Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunerako Oinarriak arautzen dituen uztailaren 25eko 18/1989 Legea, Zirkulaziorako Araudi Nagusia onartu zuen urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretua, eta zirkulazioaren alorrean indarrean diren gainerako arauak hautsi dituzten ekintzak eta omisioak, hiri bideetan egin badira.

45. artikulua. Agintaritzaren Agenteen betekizunak.

Udaltzainek, Agintaritzaren Agenteak baitira, Ordenantza honen aurkako arau-haustek galarazi beharko dituzte, eta hauteman daitezenez salatuko.

46. artikulua. Espedienteak Administrazio eskudunari helaraztea

Udalbatzar honek 2001eko abenduaren 29ko bilkuran hartutako erabakiari jarraiki, udalerrin honen lurralde eremuan, zirkulazioaren, motordun ibilgailuen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren alorrean, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Trafiko Zuzendaritzak izango du zehatzeko eskumena. Horregatik, Udalak ez du zehapenik ezarriko, eta arau-haustek zirkulazioa zaindu eta kontrolatzeko erantzukizuna duten Udal Agintaritzaren Agenteek salatuko dituzte, eta Administrazio eskudunari helaraziko zaizkio gero.



Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioaren gaineko
Udal Ordenantza
TESTU BATERATUA

AZKEN XEDAPENA Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

***NOTA:** El presente Texto Consolidado presenta, en un único redactado, la Normativa con sus posteriores modificaciones para facilitar su lectura y comprensión. No obstante, se advierte que el único texto con valor legal es el publicado en el Boletín oficial de Gipuzkoa (asimismo, las modificaciones oficiales son la publicadas en el citado Boletín Oficial)*

- - o [*Publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa e 01/03/2005*](#)
 - o *1ª Modificación: art. 15 [*Boletín Oficial de Gipuzkoa el 25/02/2014*](#)*

ORDENANZA MUNICIPAL DE CIRCULACION DE PEATONES Y VEHICULOS

EXPOSICION DE MOTIVOS

Según los estudios de movilidad sostenible encargados por el Gobierno Vasco, la sociedad actual ha encumbrado el vehículo particular a la categoría de dueño y señor no sólo de las carreteras y viales que le han sido asignados, sino de todos los espacios urbanos colindantes, destinados o no a otros usos.

Hoy en día, los derechos e intereses del resto de colectivos están siendo olvidados por unos conductores que no vacilan a la hora de invadir aceras, conducir a velocidades abusivas o incumplir normas básicas del código de circulación dentro de los centros urbanos. Nuestras calles están hoy en día invadidas por vehículos que no dudan en ocupar calzadas y aceras, haciendo valer la ley del más fuerte.

Ante dicha situación, la mala o inexistente gestión del problema del tráfico por parte de las administraciones locales o supramunicipales provocaría que todos los espacios urbanos disponibles fuesen diariamente invadidos por las necesidades del transporte particular individual, obligando "de facto" a los Ayuntamientos a reservar cientos de metros cuadrados al almacenamiento de estos vehículos particulares altamente contaminantes y perjudiciales en grado sumo para el medio ambiente.

Por todo cuanto antecede, este Ayuntamiento se ve en la necesidad de dotarse de herramientas eficaces que permitan regular el tráfico y obligar a que los derechos de colectivos tan indefensos como personas ancianas o infantes sean respetados.

La presente Ordenanza desarrolla la competencia municipal que artículo 7 del Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial atribuye a los Municipios.

Su finalidad es la de velar por la defensa de los derechos de los peatones y con tal fin su objeto se concreta en la regulación de los usos de las vías urbanas, haciendo compatible los usos sociales comunes con la necesaria fluidez en el tráfico rodado. Prevé también la posibilidad de proceder a la retirada y depósito de vehículos cuando obstaculicen o dificulten la circulación, el tránsito de peatones o supongan un peligro para ella.

TITULO I

AMBITO DE APLICACION

Artículo 1.

